

Anais Nin idazlearen ipuin erotikoak

Txalaparta argitaletxeak Anais Nin (1903–1977) idazlearen *Venusen Delta* ipuin liburua argitaratu eta horren aurkezpenak egin ditu duela aste batzuk hainbat tokitan.

Zelan sortu zen hau bezalako liburu bat, kuriooa da oso. Duela urte dezentez eta diruak behartuta, Nin ipuin erotikoak idazten hasi zen aberats anonimo batentzat. Esaten da ipuin bakoitzeko dolar bat ematen ziola dirudunak. Idazlearen hasierako asmoa baina, ez zen ipuinok argitaratzea, bere ustez pertsonaiak muturreko karikaturak baitziren. Halere, 1970ean, iritzia aldatu, eta bi liburutan bildu zituen: horietako bat *Venusen Delta* da.



“Ninek idatzitako istorioei erotismo hipnotiko bat darie, eta, haren pertsonaiek, karikatura izate-tik urrun, nortasun propio eta sendoa daukate. Horien artean, leku berezia dauka guretzat Euskalduna eta Bijou ipuineko protagonistak; nazioarteko literaturan aurrenekoz beharbada, euskaldunok desira objektu gisa aurkezten gaituelako”.